

KONTROL MOZIOA

TURISMOKO PANELETAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK DIRELA- ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Irailaren 24an Udalbatza honek aho batez ondorengoa eskatu zion Udal Gobernuari: berma dezala euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak ematen jarraituko duela, indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5, Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz.

Uztailaren 22an Donostia 2016an Europako Kulturaren Hiriburu izateari buruzko Udal Batzorde Ez Iraunkorraren ohiko batzarra izan zen. Bertako 3. puntuan Udal Batzorde Teknikoaren eginkizunen laburpenaren berri eman zitzaigun eta izen bereko dokumentuan agertzen den moduan, hitzez hitz, “...Paneletan jartzeko 5 mapa enkargatu dira, 15 euskarri ezberdinentzako (markesinak, hormetan jartzeko, auto-itsasteko...)...”.

Halaber, azkeneko asteotan, herritarren kexuak jaso ditugu, hainbat bidetatik, azken boladan hirian kokatu diren informazio paneletan dagoen hizkuntza erabilera dela-eta. Udal Gobernuak kexuok ere jaso ditu, besteak beste, iradokizun zerbitzu elektronikoen bidez.

Panel berberak direla ondorioztatuta, aipatuko paneletan euskarak bigarren mailako trataera jasotzen duenez, indarrean diren hizkuntza irizpideak urratzen ari dira. Udal Gobernuak, aldiz, behin eta berriro agindu du irizpideok betetzeko prestutasuna, baina gaia aztertzea zegokion Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean Miren Azkarate andreak ezin izan zuen azalpenik eman, ezta irtenbiderik planteatu ere, “Donostia 2016an Europako Kulturaren Hiriburu izateari buruzko Udal Batzorde Ez Iraunkorra” batzordera bideratuz. Azken honetan, aldiz, gaia tratatzeko aukerarik ez zen izan. 2016 hasteko gero eta denbora gutxiago falta delarik, horrelako gaiek duten garrantziaz jabetuta bezain kezkatuta gaude.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, 2016ko testuinguruan egiten diren informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean (hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere) euskara ez dela kaltetua izango.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia